



PRENTSA OHARRA: 2025.03.19

## **Etxepare Euskal Institutuak frankofoniaren unibertsoan jarriko du begirada euskal kulturaren kanpo proiektzioa bultzatzeko**

- **Euskal sorkuntza garaikidea 321 milioi hiztun dituen komunitate bati hurbiltzea helburu duen lau urterako ekimena aurkeztu du; erakunde, kultur eragile eta elkarte profesionalen arteko aliantza baten bidez gauzatuko dena**
- **Kultur sektoreko ordezkariak nabarmena bildu eta Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren parte hartzea izan duen topaketa profesionalak eman dio hasiera ekimenari, Getarian**
- **Egitasmoak aniztasuna globalizatzearen alde egiten du, euskara eta euskal kultura sustatuz frankofoniaren unibertsoa osatzen duten hizkuntza eta nortasun anitzekin elkarrizketan**

‘Ça colle au basque’, (hitzez hitz “euskalduntasunari itsasten zait”, burutik kendu ezin duzun zerbaiti erreferentzia egiteko frantsesez erabiltzen den esamoldea) du izena Etxepare Euskal Institutuak datozen lau urteetarako aurkeztu duen ekimenak. Euskal kulturaren proiektzioa frankofoniaren eremuan indartzea du helburu; frantsesa hizkuntza komun duten 321 milioi pertsonak osatutako kultura, nortasun eta hizkuntzen mosaikoa.

Proiektua gaur goizean aurkeztu da Getariako Zarautz Jauregian, kultur sektoreko eta erakundeetako 50 bat ordezkariarekin egindako lan-saioan. Bertan hartu dute parte Ibone Bengoetxea Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Maël Solen Picard Quebeceek Bartzelonan duen



Bulegoko zuzendariak, Yves Kordian Malandain Ballet Biarritzeko zuzendari ondokoak eta Irene Larraza Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak.

Bengoetxeak adierazi duenez, "Euskadik begirada nazioartean jarri nahi du, gure ahotsa erabakiak hartzen diren guneetan entzutea nahi du". Halaber, Etxepare Euskal Institutua "Euskadi Globala estrategian kultura eta euskararen motorra; munduan nor garen azaltzen duen pieza" izatea nahi duela adierazi du. "Eragileen arteko maila ezberdinetako lankidetzak" eskatu du sailburuak, "mugaz gaindiko kooperazioa sustatu, sareak sendotu eta gure nortasuna unibertso frankofonoan zabaltzea" bilatzen duen "epe luzeko proiektua" bultzatzeko.

Larrazak berriz, esan du datozen lau urteetan Institutuak "frankofoniaren eremu anitz eta zabal horretan" eragin nahi duela, "guri buruzko ezagutza handitzeko asmoz eta lankidetzak berriak sustatzeko ilusioz". "Eta baita ere, historian zehar hegemoniak marraztutako mapetan sorkuntza eta hizkuntza gutxituok dugun lekuaz eta garrantziaz elkarrekin hausnartzeko", gaineratu du.

Horretarako, Etxepare Euskal Institutua lurralde frankofono desberdinetako erakundeekin loturak sortzeko, garatzeko eta sendotzeko lanean ari da, komunitate horren nazioarteko proiektzioa aprobetxatuz.

Ekimenak, halaber, euskararen ezagutza eta prestigioa sustatzearen alde egiten du, esparru akademikoan euskararen hedapena bultzatuz, sortzaile eta unibertsitateen artean sinergia berriak sortuz, eta egoera diglosikoan dauden hizkuntzen eta hauek hizkuntza hegemonikoekin dituzten harremanen testuinguruan euskararen errealitateari balioa emanez.

## **Frankofonia xede**

Hizkuntza, kultura eta identitateen mosaiko zabal eta anitza da frankofonia; frantsesa hizkuntza komun duten 321 milioi laguneko komunitate plurala, bost kontinenteetan banatuta dagoena. Gainera, frantsesa munduko bosgarren hizkuntzarik mintzatuena



da. 2025etik aurrera, Etxepare Euskal Institutuak errealitate hori aztertu nahi du, euskararen gaineko ezagutza eta euskal kultura sustatzeko, eta gure kultura-eragileentzat lankidetzak aukera berriak bultzatzeko.

2018az geroztik, Institutuak Kultur Konexioak izeneko ekimenak garatu ditu. Epe luzeko ekimen horien bidez, harremanak estutzea, sortzaileen eta kultura-eragileen arteko lankidetzak indartzea, eremu kultural eta akademikoan hartu-emanak bultzatzea, eta Euskadiren profila indartu eta kultura- eta sormen-sektorearentzat posizio on bat ezartzen laguntzea xede duten jarduerak sustatzen ditu, Euskadiren kanpo harremanetan lehentasunezko zatitza jotzen diren eskualde eta herrialdeetan.

Kultur Konexioen esparruan garatutako alde biko proiektuak ez bezala, 'Ça colle au basque'-ek, lurralde zehatz batetik haratago, bost kontinenteetan barrena zabaltzen den unibertso bati begiratzen dio, maila ezberdinetako aliantzak eta proiektu multilateralak gauzatzea ahalbidetuko dituena.

## **Lau lan ildo**

'Ça colle au basque' ekimena lau ardatzen bidez garatuko da. Lehenik eta behin, Etxepare Euskal Institutuak frankofoniaren eremuan jada bultzatzen dituen dinamika eta proiektuetan euskararen eta euskal sorkuntzaren presentzia sendotuko da, besteak beste, Québec en toutes lettres (Quebec, Kanada), Fest 'Arts (Libourne, Frantzia) edota Foire du Livre de Bruxelles (Brusela, Belgika) jaialdietan.

Bigarrenik, finantzaketa-ildo berriak bultzatuko dira, euskal sortzaile eta eragileek lurralde frankofonoetako erreferentziazko azoka, jaialdi eta ekitaldi kultural eta artistikoetan parte har dezaten errazteko, baita haien argitalpen-sisteman presentzia izan dezaten bultzatzeko ere. Ekimen nabarmenen artean daude frankofoniaren eremuan gauzatuko diren euskal literaturako argitalpen-proiektuetarako finantzaketa-lerroa edota arte eszenikoen azoketan parte hartzeko laguntza espezifikoak ere, hala nola Cinars Biennale (Montreal, Kanada) eta Rideau: L'Association professionnelle des diffuseurs de spectacle (Quebec, Kanada). Gainera, 2026rako 'Itzultzaile Berriak



– Nouveaux Traducteurs' proiektuaren edizio berri bat aurreikusten da, atzerrian euskal literaturako itzultzaile sare bat sortzea helburu duena. Edizio horretan, frantseserako itzulpenean egongo da fokua.

Hirugarrenik, Ipar Euskal Herriko eragile kultural eta instituzionalekin lankidetzan indartuko da. Euskal kulturaren eta kultura frankofonoaren arteko zubi naturala dira, eta unibertso horretara sarbide bihurtzeko potentzial handia dute, errealitate linguistikoa eta egitura instituzionala partekatzen baitituzte. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Etxepare Euskal Institutua Malandain Ballet Biarritzekin Maitaldia jaialdiaren baitan garatzen ari den proiektua, euskal ekoizpen eszenikoak frankofoniaren unibertso osoko programatzaileei hurbiltzeko.

Azkenik, 'Ça colle au basque' ekimenari esker, Etxepare Euskal Institutuak lantzen duen esparru akademikoa indartu ahal izango da, erreferentziazko unibertsitateetan euskara eta euskal ikasketak zabaltzeko aukera berriak sortuz. Institutua Sorbonne eta Sorbonne Nouvelle unibertsitateekin ari da lanean, azaroan, Parisen, frankofoniako testuinguru soziolinguistiko diglosikoetako itzulpenari buruzko kongresu bat antolatzeko.

### **Kultura-sektorearen ordezkariak zabala**

'Ça colle au basque' topaketa profesional batekin hasi da, Getariako Zarautz Jauregian, eta jada egitasmoaren parte diren kultur eragile eta erakundeek hartu dute parte bertan. Datozen hilabeteetan sareak ehuntzen jarraituko duen ekimen ireki baten lehen urratsa izan da.

Ekitaldian izan dira, besteak beste, mugaren bi aldeetako kultur eta sormen ehunaren parte diren profesionalak, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko ordezkari instituzionalak, Euskadik Parisen eta Bruselan dituen ordezkariak, Euskal Hirigune Elkargoa, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea, Sorbonne eta Bordeaux Montaigne unibertsitateak eta EuroBasque.



**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**

Gainera, lehen lan-saio honetan, proiektuan jada lanean ari diren hainbat eragilek ere hartu dute parte (Malandain Ballet Biarritz, Scène Nationale-Sud Aquitaine, Euskal Kultur Elkargoa), eta datozen hilabeteetan bazkide berriak gehituko zaizkie.

## **Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzaz sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

### **Info +**

Komunikazio saila  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)